

Txillardegia

Idazlea

Laguntzak eta ukoak

■ Irakurleak badakikeenez (eta bestela ere soma zezakeenez) urteetan barrena Europan gaindi egindako adiskideez oroitut ginen mahaikideak espetxeratzean.

Eta batek emandako azalpenek artikulutxo hau baino gehiago merezi lukete.

Mamira joanda, eta esandakoak euskaraz jarritz, hauxe irakurri nuen: jai zutela mahaikideek, jai genuela guk ere. Ez genuela Europa guztian kazetaririk batere aurkituko, ezta politikaririk batere, agirian mahaikideen alde prest legokeen alerik ere.

Pasarte batzuk hitzez hitz emango ditut: «HBK izkribu bat atera, eta berori ETaren bortzikeriaren apologetzat har badaitke, guztiz gauza ziurra da inortok ere ez duela bere hatz-puntta aitxako HBko alderdikideak defendatzeko... HBK bortzikeria deplauki gaitzetsiko ez dueno, isolaturik egongo da guztiz europar mailan»...

Ukoaren arrazoiak horren garbiki aitortzeak bazuen zintotasunaren merezimendua bederen.

Eta kontsentsu hori dagoena ezin daiteke zalan-tzan jar. Eta gaurko kontua dela ere ez.

Hots, edonork berehala egiazta dezakeenez, gaur egun bortzikeria politikoa dagoen lekuetan (bortxa erabiltzea egokiago bide litzateke) nazio-arazoa dago.

Haratago joanda: atzeritar okupazioa dagoen eskualdeetan dago gaur borroka hartatua: Irlanda, Palestina, Txetxenia, Kossovo, Bosnia, Kurdistán, Chiapas. Euskal Herria ere bai, noski. Herri bat ukatua, eta harmada okupatzaile bat. Bete eskema bera funtsean.

Egonkortasunaren izenean ezarri nahi den legetasun arrotza, hitz batez, jai nahi duen herritari kontrajartzen zaion uko estatal arrotza dago.

Bortxa politikoa, beraz, Estatuaren arteko banaketaren ikutu-ezin absolutuan sortzen da. Alferrik da, hortaz, Estatuaren arteko oreka famatu horretan besterik bilatzea: Estatuak horretara banatu dute pastela. Estaturik ez daukagunok, jai: «han llegado ustedes tarde al reparto; ya lo sentimos. Amén».

Nire lagun horrek, ordea, hemengo beste askok

Bortxa politikoa Estatuaren arteko banaketaren ikutu-ezin absolutuan sortzen da. Alferrik da, hortaz, Estatuaren arteko oreka famatu horretan besterik bilatzea: Estatuak horretara banatu dute pastela. Estaturik ez daukagunok, jai: «han llegado ustedes tarde al reparto; ya lo sentimos. Amén»

bezala, ez bide du sustraira joan nahi: «HBK ez badu ETaren bortxa salatzen, jai duzue Europan». Horren gauza segurua al da hori, ordea?

Estatuak eta gobernuek gauza bakar bat gaitzesten dute lotsarik batere gabe: oraindik garaitu ez dutenen borroka.

Oso bertatik ezagutu dugu honen frogarik ezagunena. Francisco Franco zeritzon. Milioi bat heriotzaren gainean eraki zuen bere *democracia orgánica* hura. Baina 40 urtez ikusi genuen paliopean txalotua.

Baina, orainago, nola berreskuratu zituen Britainia Nagusiak Malvinas uharteak? zenbat mila kilometrotara daude Falkland berrizendatu zituzten irla hotz haiek? Baina inork ez du txintik ateratzen. Londresen Harmada ez baita hutsaren hurrena.

Beste gerla demokratiko horietako bat. Nola ezarri zen Granada Uharteko agintea? Gozokiak banatuz? Hiritarren eskubideak zehazki errespetatuz ote?

Baina beste balentriarrik ere egin dituzte Estatu Demokratikoak. Nola bir-nagusitu da Mosku Txetxenia? Nork ez du oraindik ikusi Groznyri hiriburua errotik txikitua? Nork ukatu dio agurra Jeltsini? Non entzun dugu sarraski hori zinez gaitzesteko hitzaldirik? Denok gaude lortaturik bihotz-ebakuntza ongi joan zitzaioala jakinda.

Zer ari ziren frantsesak Aljerian? Baina milioi bat arjeliarrek eman behar izan zuten bizia *Algérie Française* okaztagarri hura amai zedin.

Orain, 32 urte pasa ondoren, kantzilergo guztiak aitortzen dute Mobutu lapur aparta izan zela. Baina oraintsu arte errespetu ikur guztiak erakutsi dizkiote denek Kinshasako buruzagiari.

Zer esan nahi du, beraz, HBK bortzikeriak gaitzesten ez baditu, jai daukala? Ez da oso ongi ulertzen.

Lurginean Jainkoaren beraren ahotsa omen darama buruzagiak esan omen zien Aita Onaindiari eta gainerako kideei: «pero Vds., yendo al grano, ¿cuántos tanques tienen a sus órdenes?».

Abertzaleok ez dugu oraindik garaitu. Hona hemen arazo bakarra. ■

J.J. Petrikorena



Miraria, miraria...

E lbarritu eta ezindu guztiak zenezaren aurretik korrika hasi omen ziren Atxurín, eta Sadarren, aspaldion ezagutu den futbol-entzietorrik zailenean, liga osoan elbarri artu den taldeak ihes egin dio Bigarren Be(hera) mailako ahanzturaren amildegrira zerraman zezen arrisksuari. Libro dira, mirari guztietan gertatzen den legez, santu salbatzaile baten eskuarte zuzenaz, Martin izenekoa oraingoan, honen agindu eta keinu zerutiarrak ondo uertu dituzten jokalariei esker eta arerioak belazean burumakur utzi dituzten zaleen neurrigabeko fedearen eragina lekuko: Osa-suuuuuuu... riau! Bigarren mailako miraria izan dela esango zaigu noski, hots, Erreala UE-FÁra eramango duenik ez dugula ezagutuko, baina asteak joan eta asteak etorri Anoteko futbol-santutegian gabiltzanok debozio itsua diogu Iruretari eta... kandela ugari pizten diogula, alegia. Eta zera, gauza handia dela fedea, begira Elbar taldea, hemezortzi urtez pobrezaren eta harrobia zaintzearen boto sakratuak egin eta erlijio berari atxikirik eman eta gero, primeran dihoazkie primerarakoak. Horra paradoxa, mirariaren egia azaltzen duena. Eta zer esan Athletici buruz? Hor ez da miraririk, mirariaren miraria baizik, nola ulertzen da bestela sinesgabe eta lapurren herrialde horretan eta Fernandez izeneko sasi-santu batekin halakoak lortzea? Miraria, miraria...

Anje Sainte Marie



Gora hauteskundeak!

O men hobereñe gertatzen zaie. Sistema politikoetan, txarretan hobereña demokrazia dela irakatsi didate eta sinistatari digute. Hauteskundeak iragan dira lparalde honetan. Mahai sailduetara hurbildu gara, orain bakea bost urterentzat... Eta ez, ahanzten nuen heldu den urtean, ezusterik ez bada segurik, berriz hurbilduko gara, eskualde kontseilariak, Alkiriakoak noski, hautatzeko. Arraliarik utzirik, aitortu behar dut hala ere, beste abertzale askok bezala izugarriko poza, baita gehiago ere, hartu dudala iragan igande arratsean jakinez Baiona aldean deputatuz aldatu zirela. Ez baitzepadela Nicole Peryren hautatzea dela eta, badakigu, ikasi dugu abertzaleok, zer balio duten frantses sozialistek, bainan bai Alain Lamoussouren hartu duen muturrekoa dela eta. 700 boz miserablek KO utzi dute Frantses gobernuko bozeramaile, aurrekontu ministro, BAM distrikoko lehendakari eta Angeluko alkate orde (ufi helduko naiz) den (zen) politikari eskuindar, anti-abertzale amorratua. Ez hain aspaldi entzuten nuen jaunntxo hau irratu elkarrizketa batean aitortzen askotan damu zuela bere kargu politikoak zirela eta, ez gehiago denbora libre izaitzea, maite dituen liburuak irakurtzeko eta hain gustagarriak zaizkion eskualde batzuk bisitatzeko. Zorionez ez du gehiago damutzerik. Bai zinez, ez nau Lamoussouren-ek gezurtatuko: Gora hauteskundeak!

L A P h I T Z A

